



## EGA agiria jasotzeko

### Non jaso?

EGA gainditu duenak berak azterketa-matrikula egina duen Hezkuntza Ordezkaritzan jaso behar du agiria, errolda-liburuan sinatu ondoren eta dagokion tasa ordaindu eta gero.

### Noiz jaso?

EGAdunak horretarako abisua idatziz jasotzen duen momentutik aurrera edo-ta azken emaitza argitaratu eta, batez beste, bost astetik aurrera eskuragarri edukiko du goian aipatutako lekuan.

### Zenbateko tasa?

EGA agiria hartzerakoan 18,50 euroko tasa ordaindu behar da aurrezki kutxan, Hezkuntza Ordezkaritzan eskuragarri dagoen inprimakia erabiliz. Familia ugariko kideen kasuan, aplikatu beharreko tasa 1/2007 Legegintzako dekretuaren arabera da (EHAA 2007/12/27), 15/2007 Legearekin eguneratua (EHAA:2007/12/28).